

Free EZ Askatasuna BAI

Arberoa ibarrean Arberoa Bizirik! taldeak 5G-aren aurkako mobilizazioaren urtebeteko laburpena

Astelehena zen, 2021eko martxoaren 29a. Hogeita hamar pertsona inguru elkartu ginen Arberoa haraneko muino batean. 5G antena proiektu bati aurre egiteko deia luzatua izan zen, eguerditan. Eguraldi zoragarriak, eguzkiren erredurez gain, baldintza ezin hobekak eskaini zizkigun pesta eta bilkura uztartzeko, egiten dakigun bezala. Bakoitzak bere piknika ekarria zuen, etxeko pateak, ogia, garagardoak edo arno-botila. Elkarrizketak anitzak izanik ere, gai bat zen nagusi: 5G-a eta bere adar guztiak (uhinak, ekologia, politika, gizartea, kapitalismoa, nortasuna). Pesta doi bat ospatu zen 13:00ak inguruan, Xavier Nielen -Free-ren buruzagia-, lehen peoia heldu zenean, Axian enpresako (Free-ren azpi-kontratatzailerik) obren gidaria, aski jenatua. Bazirudien ez zuela bere xantierretan aurkaririk atzemateko ohiturarik. Langileak, arduradunak, uxerra eta jendarmeak heldu arau xake taula egituratzen hasten da. Ez gara anitz, baina tematsuak gara, Free-k berehala ulertuko du... Prentsak indarturik, gure taldea sekula baino elkartuagoa da eta, mehatxuen eta xantierraren gunera hurbiltzeko entseguen gainera, ez gara mugitzen. 5G-aren ustezko onurak goraiapatuz, iritziz aldarazten ere saiatzen dira...

Bi aste lehenago, adiskidetzeko-zaio bat burutu zen Donamartiriko herriko etxean, hautetsiak, 5G-aren aurkako taldeko kideak, CADE ingurumenaren babeserako elkartearen kolektiboko kideak, Fibre64-eko ordezkariak eta, bistan dena, Free-koak ere hor zirela. Alabaina, ez ginen ados ezarri.

Arduradunek ez ziruditen elkarrizketa horren jakinean, eta are gutxiago Donamartiriko herriko etxeak zenbait egun lehenago 5G-aren aurkako moratorioa bozkatu zuela.

Bi orenetako "negoziazioen" ondoren, eta enpresaren barneko antolaketa eskasa agerian utziz, obraburuak amore ematen du. Xantierra gibelatua da! Garaipena!

Nolaz gaude muino honetan? Zergatik? Zer da 5G-a? Zer arazo ditu teknologia horrek? Zer egin dezakegu horren aurka?

Zer da 5G-a?

Aiherra Bizirik elkarteak antolatu bilkura publikoan, CADE taldeko José Lavictoire-k 5G famatu hori aurkeztu zigun.

5G telekomunikazio mugikorren sarearen 5. belaunaldia besterik ez da. Lehenago izan dira:

1G: telefono deia

2G : + testua igortzeko aukera (SMS)

3G : + Internetera sarbidea

4G: Internet zaluagoa, bideokonferentziak, streaming-a...

5G-ak are datu gehiago transmititzeko aukera ematen du, are fiteago. Helburua "dena konektatua" aroan sartzea da: gauzen interneta, auto eta lantegi autonomoak, droneen bidezko banaketak, bideo zainketa, aurpegiaren ezagutza, metabertsoa...

5G-aren frekuentziak aitzineko belaunaldienei gehituko zaizkie. 2G-a ondoko urteetan baztertuko bada ere, 3G-a eta 4G-a paisaia elektromagnetikoan egonen dira oraino.

Gaur egun, irrati-komunikaziorako erabiltzen diren frekuentziak ez badute 2,7 GHz gainditzen, 5G belaunaldi berria 3,4 GHz-eko frekuentzian oinarrituko da. Frekuentzia hori etxeko WiFi-arenaren baliokidea da baina baita, potentzia ahulagoetan izanik ere, mikrouhin-labeetan erabilitakoaren baliokidea. Eraginkortasuna irabazteko xedearekin, 26 GHz-era emendatzea aurreikusten da etorkizun hurbilean, eta 70 GHz-era berantago.

Frekuentzia altuen desabantaila da frekuentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango dela irismena... 700 MHz-eko 4G antena baten irismena 3-4 km-ko erradioko da, baina 3,5 GHz-eko 5G antena batena 1,5 km-koa baizik. Hiru aldiz antena gehiago beharko lirarteke eremu beraren estaltzeko.

Beste desabantaila bat: frekuentzia zenbat eta handiagoa izan, seinalearen sarkortasuna orduan eta txikiagoa da. Hostotza ederreko zuhaitz bat aski da uhinen oztopatzeko. Beraz erran daiteke zuhaitzak ez direla ongi etorriak izanen gure mendi gailurretan...

Funtzionamendu egokirako, 2 km guziz antena bat behar litzateke landa gunean eta 100 m guziz hirian (oztopo gehiago). Autobus-babeslekuetan, publizitate-paneletan, kale-argietan... integratuak izanen dira. Behe-laino elektromagnetiko polita!

Antena horiek beren funtzionamenduagatik ere desberdindu dira. Adibidez, 4G antenak seinalea norabide guztietara igortzen du, uhinek eremu bonbardatua estaltzen dutelarik. 5G antenak aldiz MIMO (Multiple Input Multiple Output) teknologia erabiltzen du, eta seinalea zuzenean sarea eskatuko duen gailuruntz orientatuko duten mini-antena andana batek osatuko du. Uhinak sarea erabili nahi duen pertsonarengan soilik zuzenduak izanen dira.

Gure telekomunikazio-ingeniarren berritasun txiki bat: 5G-a jasotzen duen gailu bakoitzak beste funtzio bat ukanen du, hots igorlearena, telefono edo tableta bakoitza 5G antena txikia bilakatuko baita. Helburua denetara konektatzea da. Kilometro karratua milioika objektu konektatzea lortu behar da.

Sarearen 5. belaunaldia iraultza teknologikoa da, erabat aldatuko baititu numerikoaren erabilera eta gure bizimodua. Onerako ala txarrerako? Zu epaile!

Bilkura horretatik landa, *Arberoa Babestu* kolektiboak -Donamartiriko Free antena proiektuaren aurka egiteko sortua-, eta *Aiherra Bizirik* elkarteak 5G-aren arazoari buruz elkarlanean aritzeko deliberoa hatu zuten, *Arberoa Bizirik* izena hartuz.

Lankidetzaren horri esker, bi herrietan sentsibilizazio-programa garrantzitsuagoa hasi zen, baita Izturitzen ere, non 4G antena bat eraiki berria baitzuten. 4G dionak, zalantzarik gabe, 5G dio etorkizun hurbilean!

Traktak banatu ditugu, herritarrei petizioak izenpearazi, ondotik herriko etxeei antenen instalazioari buruzko moratorioak bozkatzeko eskatuz (hiru herriko etxeek bozkatu zuten) ; bigarren bilkura publiko bat antolatu dugu *Stop Linky-5G Ez* xiberotar kolektiboaren eskutik, eta, azkenik, martxoaren 29an elgarretaratze batera deitu genuen, obraren hastapenaren blokeatzeko.

Xantierra blokeaturik ere, argi genuen Xavier Niel-en mutilek ez zutela etsiko. Bulkada hau baliatu dugu gure indarrei ekiteko eta borrokan segitzeko. Ondoko hilabeteetan, adi egon ginen 5G-aren munduan gerta zitekeenari: artikulurik txikiena bilatu, elkartearen komunikatuak irakurri, erabaki politikoak aztertu, moratorioak zaindu...; horri esker, dokumentu-oinarri polita eraiki genuen, eta gaiari buruzko ezagutzak indartu genituen. Hainbat artikuluren bidez ere gure ikusmoldea eman genuen; besteak beste, Euskal Hirigune Elkargoak gai hortaz ez duela deus egiten eta trantsizio ekologikoaz arduratzen den lehendakariordeak Elkargoko kontseilariei moratorio baten bozka ukatu diela. *Adieu Martine, Agur Mme Bisaut !*

Etxeko garagardo bat ere prestatu dugu gure borroka diruztzen laguntzeko.

Irailaren 1ean gaitzeko zalaparta!!!

2021eko azaroaren 2an, asteartearekin, xantierraren berrabiaraztearen informazioa jaso genuen. Bi hilabete xuxen bigarren uhinaren erantzuna antolatzeko. Kasualitatez, azaroaren 1a pesta eguna izateak asteburu luze baten mentura eskaintzen zigun gure borrokaren finkatzeko.

Asteburuan hainbat ekitaldi antolatzea aurreikusitako zen: hitzaldiak, biltzar nagusiak, kontzertuak, bazkariak, eta, azkenik, xantierraren okupazioa. Irailean eta urrian bilkura andana egin zen, bai eta ere afixak kolatu, pankartak hedatu eta elkarretaratze deialdiak zabaldu hedabideetan.

Zein eragin du 5G-ak ingurumenarengan?

Urriaren 30ean, larunbatarekin, 5G-ak ingurumenarengan duen eraginaz mintzaldiarekin hasiko da asteburua. Dabid Martinez ekintzaileak eta Argia egunkariko bogalariak, 5G-ak eta haratago numerikoak naturan duen eragina hobeki ulertzeko bidea eman digu.

Kutsadura numerikoa eztabaida ekologikoetan maizegi ahanzten da, baina uste baino askoz garrantzitsuagoa da!

Hona hemen zenbait adibide:

- Numerikoa munduko berotegi-efektuko gasen %4 da (2019an). Munduko aire-trafiko osoak sortutako kutsadura halako 1,5 da! 2030erako aurreikuspenak, batez ere 5G-aren garatzearen ondorioz, %8 ingurukoak dira.

- Internet herri bat balitz, munduko elektrizitate-kontsumitzaile handiena litzateke Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren gibeletik.

- Bidalitako mezu elektronikoa bat = oren batez anpula bat piztua edo 10 g CO₂, hots zuhaitz batek egun batean xurga dezakeen kantitatea. Fitxategi erantsi batekin, 19 g CO₂ bilakatzen da. Egunean 20 mezu bidaltzeak 100 km autoan egitea bezala kutsatzen du.

Urtero 300 mila milioi mezu igortzen dira...

- Munduko bideo-streaming kontsumoak urtean 300 milioi tona CO₂ isurtzen ditu munduan. Bideo oren bat ikusteak hozkailu batek urte batez adina elektrizitate kontsumitzen du.

Arestian aipatu bezala, 5G-ak funtziona dezan, antenen kopurua izigarri emendatuko da eta horrekin batera kontsumo elektrikoa. Hala ere, 5G-aren garatzaileek diote 4G-ak baino energia gutxiago kontsumituko duela. Teorian hala izan behar luke.

Irudika dezagun Internetera 5 minutuz konektatu nahi duen pertsona bat. 4G antena batek eremua etengabe uhinez estaltzen du ; pertsona horrek Internet behar izan baino lehen, bitartean eta ondotik ere segituko du. 5G-ko MIMO teknologiarekin, suposatzen da pertsonak Internet behar duenean baizik ez duela antenak emitituko, kasu honetan 5 minutuz. 5G-ak funtzionatzeko behar duen potentzia elektrikoa 4G-arena baino handiagoa izanik, gutxiago aktibatzen baldin bada, energia gutxiago kontsumituko luke. Hori teoria da... Izan ere, 5G-aren aldekoek adibide hori usu baliatzen baldin badute ere, datu hau isiltzen dute: mugikorren kontsumoa urtero handitzen da (Frantzia 10 aldiz azken 5 urteetan), eta sare berri hori eta bere mundu ultra konektatua abian jartzeak are gehiago handituko du kontsumitutako datuen bolumena.

Sare berri horrekiko beste kezka batzuk: gailuen bateraezintasuna. Izan ere, 4G-rako diseinatu telefono bat ez dabil 5G-arekin. Hori aitzineko belaunaldiarekin ere gertatzen zen, baina gaur egun (2022ko urtarrilean) 8,12 miliar mugikor erabiltzen dira, planetako gizaki kopurua baino handiago (7,91 miliar)! Beraz, irudika gailu horiek guztiak aldatu behar balira...

Smartphone baten ekoizpenak baliabide anitz behar du. 70 kg lehengai behar da smartphone bakarraren sortzeko, 50etik 70era bitarteko material desberdinak. Jakina, material horiek ez dira leku berekoak, eta erraten da mugikor batek bere ekoizpenean 4 aldiz munduko itzulia egiten duela (diseinua Estatu Batuetan, meategiak Afrikan eta Hego Ameriketako, osagaien ekoizpena Asian, Estatu Batuetan eta Europan, muntaketa Hego Asian, banaketa mundu osoan). Metal eta lur arraroen erazketa benetako hondamendi ekologikoa da. Meategietan ur-kantitate handiak kontsumitzen dira, bertako biztanleen ur beharren kalterako. Metalen erazteko eta bereizteko produktu kimikoak erabiltzen dira, bereziki azido sulfurikoa, eta, askotan, zuzenean naturan isurtzen dira, metal astunez kargaturik. Lurzoruan sartzen den kutsadura hori saihestezina da bizidunarentzat, eta elikadura-katearen maila guztietan atzematen da. Artetik errateko, auto elektriko "ekologikoen" baterientzat ber gauza da. Kutsadura hori mendebaldekoek ez dugu ikusten. Izan ere, meategiak Afrikan, Hego Amerikan eta Txinan daude batez ere... Arazoa lekuz aldatzen da, besterik ez.

Ondorio ekologikoekin bukatzeko, nola ez aipa data-zentroen eragina, gure datu guztiak atxikitzen dituzten zerbitzari informatikoetako biltegi handi horiek, Internet biltegitratzen dutenak. Zerbitzarietako osagaiak berotzen dira, baina beroa etsai dutenez, nahitaezkoa da eraikinaren hoztea, eta honek energia kopuru izugarria xahutzen du. 10 000 m²-ko data-zentro batek 50 000 biztanleko hiri batek adina elektrizitate erabiltzen du. Gaur egun 5 000 data-zentro inguru daude, eta horietako batzuk ezin irudikatuko neurria dute ; hala nola Langfang, Txinan: 600 000 m²-ko azalera, 60 hektarea superordenagailu!!!

Enpresa batzuk ingurumen-inpaktua murrizten saiatzen badira ere, energia berriztagarria erabiliz edo zerbitzariak eremu hotzetan eraikiz (Siberia, Iparraldeko herrialdeak), data-zentro gehienak erregai fosilen menpe daude oraindik, batez ere ikatz-zentralen menpe.

Hitzaldi honen ondotik, trago baten inguruan bildu ginen, gure planetaren etorkizunari buruzko berri on guzti horien liseritzeko. Bertaratutakoak ezagutzeko aukera izan zen, asteburuan gurekin segitzeko gomita egin genien, eta buru ezagun batzuk ere ikusi genituen, adibidez Mithiriñan antenen kontra sortu kolektiboko kideenak ; bakoitzak bere borroken berri eman zuen.

Biharamunean, asteleheneko eguna prestatu genuen: bi hitzaldi, otorduak eta kontzertuak antolatzeak genituen. Arditegia gure QG-a, hitzaldi-aretoa, jantokia eta logela bilakatu zen. Ondoko lur saila kontzertuetarako xapito txiki baten ezartzeko prestatu genuen, belar bolekin pareta bat eraikiz, gailur horietako mendebaldeko haizeaz babesteko.

Gauean, afaria izan genuen Matthieu Amiech eta haren familiarekin, Matthieu biharamun goizeko lehen hitzaldirako gomitatua baikenuen.

5G-ak gizartean duen eragina

Eguraldia ez dugu lagun goizean, egitarauan aurreikusi genuen ibilaldiaren ziurtatzeko (antena horrek ukituko lukeen ingurumena ezagutzeko eta ibarrean izan ziren beste borrokak erakusteko aukera, batez ere Eltzarruze mendigunean harrobi proiektu batek porrot egitea ahalbidetu zuena). Bertaratutakoek prestaketan lagundu gintuzten, eta mintzaldiaren beha bordan instalatu ziren. 10:00etan, mintzaldiaren hasiera. Berrogei bat lagun bildu ginen Matthieu Amiech-en inguruan, eta teknologia horrek sor zitzakeen gehiegikeria sozialak aztertzeak aukera eman zigun.

Hain zuzen, numerikoak gero eta presentzia handiagoa du gure bizitzan, eta ezinbestekoa bihurtzen da egoera batzuetan (adibidez deklarazio administratiboetarako, edo zenbait jatetxek kartak kendu dituztenez, QR kode batekin bakarrik ikus daiteke menua). Numerikoa gure eguneroko bizitzako bazter guzietan sartzen da, normala bihurtu arte, kontagailu elektrikoak ere Internetera konektatuta direlarik. 5G-arekin eta gauzen internetekin, den-dena konektatzen ahalko da. Gauza arrunt zentzugabeak, hala nola, orri markagailu konektatua, liburua berriz irakurtzen hastean SMS bat igortzen dizuna, zein orrialdetan gelditu zinen errateko; edo etxetresna konektatuak, adibidez hozkailu adimentsua, eskas diren produktuen eta gure ohituren arabera erosketak zerrenda bat sor dezakeena, eta zuzenean supermerkatu hurbilenera bidali, non robotek eskaera prestatu eta Amazoneko drone batek zure atera ekarriko dizkizun erosketak.

Bistan dena, guzti horrek ziber-segurtasunaren arazoa dakar; izan ere, funtzionatzeko eta gure ohituren egokitzeko, objektu horiek datu pertsonal ugari konektatu beharko dituzte. Datu horien bilketa eta lantegi pribatuek eta pribatuentzat egindako birsalmenta munduko « el dorado » berria da, big data. Multinazional handientzat, gizakiak izan aitzin, diru moltsak gara, kontsumitzaileak. Beraz, guri buruzko informazio txikiak urrea balio du. Horretarako dute interesa gure eguneroko bizitzan ahalik eta gehien sartzeko, gure biziaren « errazteko », batez ere domotikari (etxe automatizatua) edo kitorik diren aplikazio horiei guztiei esker. Baina kasu, argi ukan dohainik izateak produktua zu zarela erran nahi duela...

Garapen hori ez da etxeetan geldituko, 5G-aren helburua hiri adimendunak edo smart-city-ak sortzea baita. Hiri horiek ekologikotzat (energia-baliabideen eta hondakinen kudeaketa adimen artifizialaren bidez, kale-argi automatikoak, auto elektrikoak), funtzionaltzat (autoen eta garraio publiko autonomoen bidezko trafikoaren kudeaketa, dronen bidezko banaketak) eta segurutzat

(bideoa, aurpegiaren azterketa) saltzen dizkigute. Hori biziki polita da paperean, baina, gorago aipatu bezala, ekologiarri dagokionez, gure bizitzaren digitalizazioak arazoa desplazatu baizik ez du egiten. Adimen artifizialak eragin automatizazioari dagokionez, lanpostu anitz suntsituko dira... Industrialariak 5G hori lantegi, biltegi eta administrazioetan ekoizpen-kateak automatizatzeko benetako aukera gisa ikusten dute. Bideo-zaintza eta aurpegiaren ezagutza herritarren kontrol orokorra lortzeko ate arriskutsua dira. Gutaz dena jakiten ahalko da (kokapena, ohiturak, dieta, erlijioa, orientazio sexuala eta politikoa...) eta hau gau ta egun. Gure mugimendu guziak kamera baten begien edo mikrofonoen menpe izanen dira. Horrek Georges Orwellen "1984" eleberriaren (1949an argitaratua) ikuspegia ere gaintuko du. "Big brotherrek zaintzen zaitu!" » Hiri adimendun horiek autoritarismo numerikoaren sarbidea dira, Txinako "gizarte-kredituarekin" bezala. Biztanle bakoitzari puntuazio bat ematen zaio, puntu kopuru bat. Pertsona erregimenaren noranzkoan doanean, deliturik egin gabe eta "herritar ona" izanik, "libre" bizi ahal izanen da. Baina arau-hauste bat egiten badu (kamera batek, mikrofono batek, Interneteko moderatzaile batek edo adimen artifizial batek identifikatua), bere puntu-kopurua arau-haustearen larritasunaren arabera apalduko da. Bere nota apalegia bilakatzen bada, eskubide eta askatasunak murriztuko dira (toki jakin batzuetarako sarbidea, administrazio-zigorak, enplegurako sarbidea, zenbait eskolatan izena ematea, bidaiatzeko ezintasuna...) eta zerrenda beltzean publikoki agertuko da, adibidez, geltoki aretoetan. Puntuen berreskuratzeke, herritar ona dela frogatu beharko du, baina herrikideen portaera txarrak salatuz ere berreskuratzen ahalko ditu.

Irudikatu hori hemen. Mundu horretan, jatetxe batean sartzeko, garraio publikoan sartzeko edo are okerrago kultur leku batean sartzeko gure "garbitasuna" frogatu beharko genuke... Non dira gure askatasunak jende egiten gaituen guztia datu-base erraldoietan atxikiko den mundu batean, non noiznahi gure kontra erabiltzen ahalko diren? Jende izanen gara oraino?

Eguerdian, elkarrekin bazkaltzeko ordua da, eta oraino bizirik garelako oroitzeko ere. Egunaren puntua egiten dugu, arratsalderako prestaketen aitzinamenduarena ere; zenbaitzu badoaz eta beste batzuk heltzen dira. Matthieu-k erakusmahai bat apailatzen du *La Lenteur* argitaletxeko liburuen eta partaide den *Ecran total* elkartearen agirien aurkezteko.

Jardunaldiak herritarren jakin-mina asetzeaz gain, polizia indarra ere astindu du. Dena ongi doala eta ez garelako armada baten biltzen ari egiaztatzerako heldu dira.

Eta osagarriaz zer?

Arratsaldean, musika-taldeak heltzen hasten dira, materiala prestatu eta soinu frogak egiten dituzte; Asier Arregi, berriz, bordan instalatu da, 5G-aren eragin sanitarioari buruzko mintzaldiaren emateko.

Badakigu uhinek osagarriaren duten eragina eztabaida ugariren sorburua dela.

Izan ere, telekomunikazioerako erabiltzen diren uhin-luzerak erraz sartzen dira gorputzean. 5G uhinak (3,5 GHz-etik gorakoak) ez badira hain sarkorrak ere, belarriaren kontra edo sakelari teknologia hori darabilen telefono bat ukaiteak ez du inolako arazorik izanen bere fluxu elektromagnetikoa gorputzean sartzeko.

Materia bat zeharkatzean, uhinek agitzio molekular bat sortzen dute. Hori da mikrouhinaren printzipioa. Uhinek berotu beharreko elikagaien dauden ur molekuletan eragiten dute eta sortzen duen agitziotik sortzen dute beroa. Gainera, giza gorputzaren %65 ura da... Eta frekuentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da agitzioa. Beraz, zenbat eta gehiago handitu etorkizuneko komunikazio-belaunaldien uhin-luzera, gero eta arriskutsuagoa izanen da haren eragina. Nahaste molekular horrek minbizi ugari eraginen lituzke, hormona-desorekak, buruko mina, hesi hematoentzefalikoaren alterazioa (garuna patogenoetatik babesten du), ugalkortasun-arazoak... Azterketa batzuek telefonoen frekuentziaren eta garunaren konexio elektrikoaren frekuentziaren arteko antzekotasuna erakusten dute, hainbat nahaste dutela ondorio gisa: oroimenarena, arretarena, ikasketena, loarena...

Ikerketa ainitzek uhin horiek osagarriarentzat arriskutsuak direla frogatzen dute, baina gobernuek

beren norabidean doazenak baizik ez dituzte entzuten... Bereziki, ANSESena, 5G-aren hedapenarekin "osagarriko arrisku berririk" ez dela ondorioztatzen baitu. ANSES (Elikagaien, Ingurumenaren eta Lanaren Osagarri Segurtasunaren Agentzia Nazionala) erakunde publikoa da eta haren zuzendari nagusia Errepublikako lehendakariak izendatzen du. Inpartziala ote? Bestalde, Frantziar pestizida kaltegarrien ongarrantzea baimentzen segitzen duten horietan dira. Eremu magnetiko bat emititzen duen antenak nahitaez ingurunea aldatzen du. Estatuak onartu azterketek diotenez, antenak ez badira kaltegarriak, zergatik debekatu berrien eraikitzea ama eskolen edo haurtzaindegien ondoan? Zergatik kasu horretan zehar printzipioa aplikatuko litzateke, eta ez 5Garen hedapen osoan? Eremu elektromagnetiko horiek ez diete gizakiei bakarrik eragiten, ingurune osoari baizik. Erleen kopurua nabarmen murriztu da kaltetutako lekuetan. Baina kalteak badira ere hegaztien migrazioan, gau ainarentzat edo hazkuntzako abereentzat ere. Beste zerbait, teknologia horiek osasunean duten zeharkako eraginaz: 5G-ak gure bizitzako osagai guztiak konektatuta eta numerizatu nahi ditu. Internetetik eta sare "sozialekiko" mendekotasuna gero eta handiagoa izanen da, eta antisia, jazarpen, bakartasun eta depresio arazo gehiago ekarriko ditu.

Ilunabarra da, lehen gitarra soinuak entzuten dira eta gaueko giroan sartzen gara. Bost talde borrokaren laguntzera etorri dira. Ttattola Gaztetxeko gazteen sustengua badugu, ostatuan zerbitzatzeko prest dira. Laster, ehun bat lagun dira karpa azpian, bateriaren erritmoan burua kulunkatuz.

Usu bezala, gaualdiaren luzatzeak eztabaida politikoak dakartza, eta taulagainean zintzilik ageri den gorritz marraturiko "5G"-ak eztabaidak bideratzen ditu.

Laster ohartzen gara 5G-a uste baino gai politagoa dela. Osasuna, klima eta gizartea hunkitzen duten hainbat azterketek teknologia horren hedatzearen arriskua erakusten dute. Zergatik beraz buruzagiek segitzen dute garatzen? 5G-ari buruzko moratorio bat egiteko eskaera Klimarako Hitzarmenaren neurrietako bat zen, eta Macron neurri horien betetzera engaiatu bazen ere, "olio-lanpen arora itzultzea" aipatuz eta 5G-aren aurkakoak "Amish"-ak zirela salatuz, neurria baztertzearabaki zuen... Dena den, jendea kakinarazteko ohitura ezagutzen diogu.

5G erroka politikoa da, teknologia horrek jendearen kontrola ahalbidetzeaz gain, herri baten indarra ere erakusten baitu. Numerikoaren hautua besteak baino lehen egiten duenak abantaila izanen du. Irrati-komunikazioa konexio bat da, zuntz optikoa, autopista edo AHTa bezala. Beti fiteago, beti indartsuago! Neo kapitalismo ultra-liberalaren funtsezko printzipio bat da, argi eta garbi.

Beraz, estatu barneko erroka da, baina baita nazioartekoa ere. "Beti indartsuago" eskala handiagoan ere ibiltzen baita. Huawei Ericsson eta Nokiaren aurka, Txina Mendebaldearen aurka, gerla hotz berria... Hedagailuak ekoizten dituen enpresa txinatarra (Estatuak azkar diruztatua) mundu osoan plantatzen da; mendebaldeko herrialdeek, berriz, Txinako intrusio hori ez dute onartzen eta etxeko markak hautatzen dituzte. Datuak dituenak aberatsa da. Big Data.

Gure buruari galdegiten diogu: "zergatik gu"? Zergatik 5G antena bat ezarri Arberoko gailur txiki batean, 500 lagun gehienez estaltzeko? Zein da helburua? Arazo hori arlo zabalago batetik ikusirik, ohartzen gara haien helburuen erdian garelako, besterik ez. Ekonomia -eta botere- joko ikaragarri baten parte bagina bezala.

Gu, Euskal Herri "txikia", Espainiako eta Frantziako bi gizajaleek aspalditik pitzika jana, eta gero gizajale amerikar, europar eta txinatar are handiago batzuek jankatua. Beren konkista eta kontrol bidearen erdi-erdian (LGV, 5G, gas-hodiak, autobideak, zetaren ibilbide berriak...). Zer egin dezakegu?

Erantzuna erraza da. Segi! Egiten dakiguna egiten segi, guhaur izaten, elkartzen, gure indarrak biltzen. Han baldin baginen martxoaren 29an eta asteburu horretan, 5G-ren hedapenari aurre egiteko zen, baina ez bakarrik. Han egon gara batez ere gure lurra, gure arbasoena eta etorkizuneko belaunaldiena defendatzeko.

Free-ko brigada biharamunean itzuli zen, 70 ginen haien beha. Eta asma zer egin duten...? Etxera itzuli ziren!!!

Segitzekoa.

Ikus arte!